

*TOPONIMIA DE VITORIA IV / GASTEIZKO TOPONIMIA  
IV, Langraiz*

Egun hemen aurkezten dugun liburua Euskaltzaindiaren *Gasteizko toponimia* proiektuaren azken emaitza da, aurretik argia ikusi zuten *Toponimia de Vitoria I / Gasteizko toponimia I. Ciudad/Hiria* (OV 27, 2009), *Toponimia de Vitoria II / Gasteizko Toponimia II. Malizaeza* (OV 28, 2009) eta *Toponimia de Vitoria III / Gasteizko Toponimia III. Ubarrundia de Vitoria / Gasteizko Ubarrundia* (OV 29, 2010) lanen ondotik heldu dena. Ikus daitekeen bezala, oraingoa DVD formatuan argitaratu da, ez baita nahitaez gauza txarra, eskola zaharrekoek menturaz papera ukitu ahal izatearen falta sumatuko eta ezagutuko badute ere. Aipatu liburu horietako lehena Elena Martinez de Madinak Henrike Knörr zenarekin batera idatzia da eta beste biak, baita egun aurkezten duguna ere, Elenak berak bakarrik eginak dira.

Proiektuaren zuzendari naizen aldetik niri dagokit lanaren garrantzia nabarmentzea. Gasteiz eta beharbada "Gasteizerria" dei genezakeena biziki garrantzizkoak dira eta izan dira beti euskararendako, baina, tamalez, ez dira anitz ditugun hemengo — eta Arabako oro har— euskararen lekukoak. Hor dago hamaseigarren mendeko Landuchioren hiztegia, aspaldi xamarrean (1958an) Koldo Mitxelena euskaltzain eta

hizkuntzalariak ohi zuen maisutasunez aztertu zuena, eta geroago agertu den Barrundiako Larrea herriko Perez Lazarragaren testua, Joseba Andoni Lakarra eta bere taldea aztertzen ari dena. Azken hau, dena dela, ez da Gasteizkoa bertakoa, ezta Gasteizerrikoa ere, bistan denez, baina bai balio handikoa Arabako euskararen berri izateko. Orain urte batzuk, 1998an, Arabako zenbait testu eta berorien azterketa jasotzen zituen H. Knörrek eta K. Zuazok apailatutako *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak* argitaratu zuen Eusko Legebiltzarrak. Nahi duenak hara jo dezake, gauzak, alderdi honetatik, orain urte batzuk nola ziren jakiteko.

Beraz, eta testu gutxi ditugunean, edo batere ez denean, onomastika izan ohi da —eta honen barnean toponimia— tokian tokiko lehengo hizkera galdua ezagutzeko erabiltzen den baliabiderik emankorra (bestea gelditu diren euskal hitzen bilketa eta azterketa da), baina honek ez du erran nahi beti hagitz emankorra dela: arlo batzuetan (hiztegian, atzizkietan, fonetika kontu batzuetan...) bada, baina beste batzuetan (aditz morfologian, joskeran) arras gutxi dira ematen dizkigun argitasunak. Nolanahi ere, ditugun iturri eta eskuarte guztiak erabili behar ditugu eta, erran bezala, toponimia da horietako bat. Eta honetan datza Elena egiten ari den lanaren garrantzia, haren ikerketen bitartez hobeki ezagut baitezakegu inguru honetako

euskara galdua. Egia da beste batzuek ere (Gerardo Lopez de Gereñuk batez ere, *Toponimia Alavesa*, OV 5, 1989) aztertu dutela Arabako toponimia, baina Knörr, González de Viñaspre eta Elena iritsi arte lan horiek bilketan gelditu dira maiz, hots, toponimoak ez dira interpretatu, ez eta ere mapetan sartu.

Orain datuetara jaitsiz, luzatzeko asmorik gabe, liburuan biltzen diren honako ezaugarri eta ekarpen hauek aipa ditzakegu:

1. Herri izenen euskarazko bertsioa: *Ariz*, *Arkauti*, *Billoda*, *Estarroa* (eta *Eztarroa*, *Ezterna-*, *Esterna-*), *Krispiña* (eta *Krispina*), *Oto*, *Subilla*, *Tresponde*, *Zuhatzu*... Beste batzuk ez dira aldatzen, hizkuntza batetik bestera: *Gereña*, *Gometxa*, *Lermanda*. Kasuren batean aldaera laburtua dago: *Berrostabidea*, *Berroztabidea*...

2. Hein batean espero genituen eta orain berretsirik gelditzen diren hitzak eta aldaerak aurkitzen ditugu: *abade*, *aldai*, *angelu* 'lurra, zola', *arbin* 'bidexka meharra', *ardantza*, *aur* 'aurrea'; *baltz*, *barri*, *baso* (baina irudi luke *oihan* ere badela, arrasto zenbait, Subillan), *beratza* 'larrea'-edo, *borin-* (baina *errota* ere frankotan azaltzen da), *erramu* 'ereinetza', *erreka* (eta *errekea*, forma mugatua), *gana* (baina *gaña*-ren bat ere bada, *gana*-rekiko lehian), *huri*, *intsagur*, *isasi*, *kamino*, *kurtze* 'gurutzea', *lanbarri*,

*larrin*, *okelu* 'zokoa'-edo, *ogen* 'okerra, makurra', *ortu* (ez *baratza*), *oste*, *oxin*, *padura* (eta *laku*), *perra*, *pozo* 'putzua', *solo*, *sulgu* edo *zulgu* 'ildo' eta *-txo* atzizki txikigarria, besteak beste.

3. Deigarria da *ondo* ez azaltzea, *bitarte* eta *biarte*, *mandazai* eta *mandazain*, *biak*, *egotea* (eremu banaketa osagarrian lehen kasuan?) eta *erratura* 'rotura' aski ugaria izatea, besteak beste.

4. Atzizkietan *-dui* multzokaria aipa daiteke, *Arantzaduia*, *Pagaduia*, *Sagastuia* eta *Zumaduia* leku izenetan dagoena, edo *-tzaia* ugaritasunezkoa: *Linatzaia*, *Mimentzaia*, *Olatzaia*...

5. Fonetikaren eta morfologiaren arteko eremuan artikularen gehiketak sortu disimilazioa aipa daiteke lehenik: *Armendekoa*, *Mutuetea*, *Sagarragea*... eta *Arteko larra*. Beste bilakabide fonetiko batzuk hauek dira: *bokalerdia* + *-tz* > *tx* bilakaera, beste leku frankotan ere ezaguna izanagatik: *atx*, *aretx*, *bakotx*, *gatx* eta *hurretx*. Hauen antzekoa da *elexa* 'eliza' eta *kerexa* 'gerezia' izenetan duguna. Interesgarria da, orobat, Gometxako *Otatzako launa* toponimoa, erakusten duen *launa* horrengatik, eta hemengo toponimian ageri den *barru*, ekialderagoko *barren*-en baliokidea dena, hots, aurkintza baten beheko alderdia adierazten duena.

Jakina, forma bereziak baditu ere, askoz gehiago dira hemengo mintzo galdua beste hizkerek (eta beste toponimia eremuekin) batzen duten hitzak: *bide, bizkar, erreka, haran, harrobi, ibar, iturri, kaltzada, kapana, landa, lats, pausu, sarri, zubi...* eta orain aipatu beharrik ez den beste hamaika. Hemengo toponimoetan aurkitzen ditugun hots aldakuntza batzuk ere orokorrak dira euskaran.

Badira izen ilunsko eta interesgarri batzuk: *Abudua, Betelea* eta *Elea, Biritxina, Gingia* edo *Gingina, Itsioa, Mutuetea, Salbirikua, Udaia...* Hauendako egileak, Elenak, batzuetan azalpen proposamena egin du, baina beste batzuetan ez. Bistan da onomastikaren arloan gauza guztiak ezin direla azaldu, badirela izen ilunak, geroko ikerketak argitu beharko dituenak. Hau, nolana ere, urrats garrantzizkoa da bide horretan.

Jakina, toponimia ez da garrantzitsua bakarrik lekuan lekuko hizkera galduaren berri ematen digulako. Gaur egun, hau bezalako eremu «hiritartuetan» toponimoak industriaguneak, kaleak, plazak eta beste izendatzeko erabiltzen dira eta, horretarako, argi dago, leku izenak zein eta nolakoak ziren jakin beharra dago, hots, agertzen zaizkigun toponimoen aldaera ugariatatik bat aukeratu behar da forma estandartzat, grafia jakin bat eman behar zaio, irizpide batzuen arabera, metodologia jakin

bati jarraikiz, eta hori ezin du edozeinek egin. Baina liburu honetan egin da.

Bukatzeko, erran nahi nuke garrantzizkoa dela gaur aurkezten dugun lana eta munta handikoa dela oraino eginkizun dagoena, Gasteizko eta Arabako ondare ez-materialaren parte pisu handiko bat, toponimia, atxiki, gorde behar delako.

*Patxi Salaberri*

*Gasteizen, 2013ko azaroaren 13an*

*TOPONIMIA DE VITORIA IV / GASTEIZKO TOPONIMIA  
IV, Langraiz*

La obra que presentamos hoy es el último fruto del proyecto de Euskaltzaindia denominado *Gasteizko toponimia* o *Toponimia de Vitoria*. Hasta ahora han visto la luz los siguientes tomos: *Toponimia de Vitoria I / Gasteizko toponimia I. Ciudad/Hiria* (OV 27, 2009), *Toponimia de Vitoria II / Gasteizko Toponimia II. Malizaeza* (OV 28, 2009) y *Toponimia de Vitoria III / Gasteizko Toponimia III. Ubarrundia de Vitoria / Gasteizko Ubarrundia* (OV 29, 2010). Como puede verse, la obra que se presenta hoy se ha publicado en formato DVD, cosa que en sí no es mala, a pesar de que la gente de la antigua escuela a la que le suele gustar tocar el papel y tener la obra entre sus manos pueda tener la impresión de que le falta algo. El primero de los libros mencionado fue obra de Elena Martínez de Madina aquí presente y del añorado Henrike Knörr, y los otros dos fueron fruto del trabajo de Elena.

Como director del proyecto me corresponde a mí señalar la importancia del trabajo que presentamos. Es sabido que Vitoria-Gasteiz es y ha sido importante para el euskera, desde el punto de vista de la dialectología vasca por ejemplo, pero, desgraciadamente, son pocos los testimonios del euskera local con que contamos. Tenemos el diccionario del italiano Landuchio de

la segunda mitad del s. XVI, que fue estudiado por el académico y lingüista guipuzcoano Koldo Mitxelena en 1958 con su maestría habitual. También tenemos, aunque corresponde a una variedad más alejada de la capital, la obra de Perez de Lazarraga, de Larrea, aparecida no hace mucho y que está siendo estudiada por Joseba Andoni Lakarra y su equipo. Además, hace unos años, en 1998, H. Knörr y K. Zuazo reunieron los testimonios del euskera alavés que entonces se conocían en la obra denominada *El Euskara Alavés. Estudios y Textos*, que fue publicada por el Parlamento Vasco.

Por lo tanto, conocemos pocos textos del habla local, y, en casos así, la onomástica —y dentro de ella la toponimia— suele ser el medio más fructífero (el otro es el análisis del léxico residual) para conocer el habla perdida de un determinado lugar o región. Esto, sin embargo, no quiere decir que el análisis de los nombres de lugar sea siempre muy productivo: en algunos ámbitos (vocabulario, sufijos, sonidos...) lo es, pero en otros (morfología verbal, sintaxis) son muy pocos los datos que nos proporciona. De todos modos, no nos queda otro remedio sino utilizar todas las fuentes que están a nuestro alcance y, como se ha dicho, la toponimia es una de ellas. Y en esto reside la importancia del trabajo de Elena, ya que a través de sus investigaciones podemos conocer mejor, en cierta medida, el

euskera perdido de la zona en que nos encontramos. Es cierto que también otros autores (Gerardo López de Guereñu especialmente, *Toponimia Alavesa*, OV 5, 1989) han estudiado la toponimia alavesa, pero hasta los trabajos de Knörr, González de Viñaspre y Elena Mtez. de Madina muchos de ellos se quedaban en la mera recogida de datos (lo cual no es poco, cuando está bien hecha), es decir, no se interpretaban los topónimos y no se situaban en un mapa.

Yendo ahora a los datos concretos, sin intención de alargarme en mi exposición, podemos mencionar las siguientes aportaciones de la obra que presentamos:

1. Se documenta a menudo la versión eusquérica de los nombres de los pueblos de los alrededores: *Ariz* 'Aríñez', *Arkauti* 'Arcaute', *Billoda* 'Villodas', *Estarroa* (y *Eztarroa*, *Ezterna*-, *Esterna*-) 'Estarrona', *Krispiña* (y *Krispina*) 'Crispijana', *Oto* 'Hueto', *Subilla* 'Subijana', *Tresponde* 'Trespuentes', *Zuhatzu* 'Zuazo'... Otros nombres no cambian con respecto a la forma empleada también en castellano: *Gereña*, *Gometxa* o *Lermanda*. En algún caso encontramos la forma reducida del nombre de alguna localidad: *Berrostabidea*, *Berroztabidea* 'El camino de Berrostegieta'.

2. Hay una serie de palabras y variantes que esperábamos, en parte al menos, encontrar. Ahora, con los nuevos testimonios queda confirmada su presencia en el habla eusquérica local: *abade* 'cura', *aldai* 'cuesta, ladera', *angelu* 'suelo', *arbin* 'camino estrecho, calleja estrecha', *ardantza* 'viña', *aur* 'parte delantera'; *baltz* 'negro', *barri* 'nuevo', *baso* 'bosque' (pero queda también algún resto de *oihan*, en Subijana), *beratza* 'prado', *borin-* 'molino' (pero parece que lo vivo últimamente era *errotta*), *erramu* 'laurel', *gana* 'alto' (se presenta también algún *gaña*), *huri* 'pueblo, barrio', *intsagur* 'nogal', *isasi* 'especie de artiga', *kamino* 'camino' ('carretera?'), *kurtze* 'cruz', *lanbarri* 'rotura', *larrin* 'era', *okelu* 'rincón', *ogen* 'torcido', *ortu* 'huerto' (no *baratza*), *oste* 'zaga, parte trasera', *oxin* 'pozo de río', *padura* (y *laku*) 'paúl', *perra* 'rain, herrén', *pozo* 'pozo', *solo* 'pieza, labrantío', *sulgu* o *zulgu* 'surco' y el sufijo diminutivo *-txo*, muy frecuente.

3. Llama la atención que no aparezca *-ondo* 'junto a', y también el hecho de que encontremos *bitarte* y *biarte* 'parte intermedia', *mandazai* y *mandazain* 'arriero', es decir, las dos variantes (¿el primer par estará en distribución complementaria?), o el nombre *erratura* 'rotura'.

4. Es digna de mención la variante *-dui* del conocido sufijo colectivo, presente en topónimos como *Arantzaduia* 'el espinal'

(se puede comparar con *Arantzadi* de Pamplona, hasta muy tarde *Arantzedi*), *Pagaduia* 'el hayal', *Sagastuia* 'el manzanar' y *Zumaduia* 'el mimbreral' que tenemos al lado de *Mimentzaia*, del mismo valor al parecer, topónimo provisto del sufijo abundancial *-tzaia*, presente también en *Linatzaia* 'el linar', *Olatzaia* 'el majadal' *vel simile*.

5. En el campo situado entre la fonética y la morfología se puede mencionar en primer lugar la disimilación causada por el artículo, cuando la palabra acaba en *-a*: *Armendekea*, *Mutuetea*, *Sagarragea*... y *Arteko larra*. Es de señalar, igualmente, la palatalización que encontramos en el grupo compuesto por una semivocal palatal y *-tz*, que evoluciona a *-tx*: *atx* 'peña', *aretx* 'roble', *bakotx* 'único, solo', *gatx* 'malo, grande' eta *hurretx* 'avellano'. Es similar la evolución de *elexa* 'iglesia' eta *kerexa* 'cerezo', procedentes de *eleiza* y *kereiza* al parecer. Es interesante, del mismo modo, desde el punto de vista lingüístico, el topónimo *Otatzako launa* 'la plana de Otatza', 'el llano de Otatza', y también *barru*, que en toponimia, al igual que el más oriental *barren*, significa 'la parte baja (de un término)'.

Como era de esperar, son muchas más las características que unen el habla local al resto de las hablas vascas que las que la separan. Entre las palabras más habituales tenemos, por ejemplo,

*bide* 'camino', *bizkar* 'espalda', *erreka* 'arroyo', *haran* 'valle', *harrobi* 'cantera de piedra', *ibar* 'vega, valle', *iturri* 'fuente', *kaltzada* 'calzada', *kapana* 'cabaña', *landa* 'campo', *lats* 'riachuelo', *pausu* 'paso de río', *sarri* 'espesura, clase de bosque', *zubi* 'puente', etc.

A pesar del esfuerzo realizado, quedan todavía topónimos que la autora no ha podido explicar o que ha explicado sólo en parte y con dudas: *Abudua*, *Betelea* y *Elea*, *Biritxina*, *Gingia* o *Gingina*, *Itsioa*, *Mutuetea*, *Salbirikua*, *Udaia*... En algunos de estos casos Elena ha adelantado ciertas hipótesis que deberán ser confirmadas o rechazadas por investigaciones posteriores. Esto en sí ya es, no cabe duda, un paso hacia adelante.

Por otro lado, la toponimia no es importante solamente para estudiar el habla local ya desaparecida. En la actualidad, en ámbitos tan urbanizados como este, los topónimos se emplean para denominar polígonos industriales, calles, plazas, etc., y para ello hay que estudiar dichos topónimos, elegir una forma estándar o común, darle una grafía determinada según unos criterios más o menos generales, siguiendo una metodología concreta, y eso no lo puede hacer cualquiera, es decir, hay que ser experto en el tema, aunque esto no exime completamente de errores.

Para terminar, me gustaría señalar que la obra que hoy se presenta es importante por las razones mencionadas e, igualmente, que todavía queda mucho por hacer para acabar de recoger la toponimia del entorno, esa parte tan importante del patrimonio inmaterial de Vitoria-Gasteiz y de Álava en general.

*Patxi Salaberri*

*Gasteizen, 2013ko azaroaren 13an*